



Distantzia 9,2 m	Desnibela 223 m	Iraupena 2h30	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR
----------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	------------------------

Baionatik, D932 errepidetik joan, Kanborantz. Uztaritzeko herria pasatu eta 2,5 km-ra, hartu D650 errepidea, Haltsurantz. 750 m geroago, trenbidea zeharkatu, eta 50 m urrunago, autoa elizaren pareko aparkalekuan utzi.

GPS datuak: **UTM : 627720 - 4803593 Lat/Long : 43,3743/-1,4234**

Haltsuko herrixka biziki ederretik abiatzen den ibilbide hau oso egokia da ibilaldi erraza eta itzatsua egin nahi duten familientzat. Udako egun beroetan, haritz lepatuen artean, freskotasun pixka bat aurkituko duzu. Oihana arras atsegingarria da, eta harrigarria da inguruko bizitegietatik hain hurbil egonik ere oihanez inguratuta sentitzea. Paisaia anitzeko ibilbide honetan, ibarxka oihantsuetatik auzogune-etara, Euskal Herriko baserrialdea eta etxe ederrak ezagut daitezke.

1. ZATIA > Abiatzea

UTM: 627720 - 4803593. Elizaren pareko aparkalekutik, errepidean eskuinera joan, eta 80 m ibili. Ezkerraldean, Denentzat eraikina dago. Pasatu eraikinaren atzetik, oihanean sartzen den bidexka oso atseginaren hasiera aurkitzeko.

2. ZATIA > Bidebanatzea

UTM: 628300 - 4804041. 950 m ibili ondoan, bidebanatze batera iritsi. Joan ezkerredera eta jarraitu oihanetik.

3. ZATIA > Oihanetik ateratzea

UTM: 628426 - 4804269. Zubixka ez zeharkatu eta joan eskuinera. Bidexka errearen hegitik doa; 200 m ibili. Gero, eskuinetik doa, gora, oihanetik ateratzeko. Iratzeleku batean igo, beste 200 m. Bide batera iritsi, eta bideari jarraitu, ezkerretik. 100 m urrunago, berriz ezkerredera joan. Segitu bidetik ibiltzen, auzogune batera iritsi arte. Auzogunea zeharkatu, errepide batera iritsi arte.

4. ZATIA > Errepide zatia

UTM: 628905 - 4804594. Joan ezkerredera, eta errepidean 200 m ibili, kontu handiz. Gero, joan eskuinera, bide harriztatu batetik, eta 100 m ibili. Orduan, aurkitu eskuinera doan bidexka ttipi bat. Bidexka ibarxkan behera doa, pentze baten bazterretik, ezkerretik. Ibarxkaren barne-barnean, metalezko zubixka bat zeharkatu eta beste mendi mazelatik igo, iratzeen artetik, etxalde batera iritsi arte. Etxalde horren itzulua egin, ezkerretik. Azkenik, errepide batera iritsi.

5. ZATIA > Errepidea eta mendian gora eta behera

UTM: 629484 - 4805425. Errepidean, joan ezkerredera, eta 250 m ibili. Gero, berriz ezkerredera joan, jaisten den beste errepide batetik. 300 m geroago, errepide mundrunatua utzi, joan eskuineko bidetik, eta 800 m ibili. Metalezko atexka handi batera iritsi. Bidetik jarraitu, atexkaren ezkerretik joanez. Bidea, laster, oihanera jaisten den bidexka bilakatu da. Behereko aldean, zurezko zubixka zeharkatu, eta berehala ezkerredera joan. Errekaren hegitik ibili, zenbait metro. Gero, joan eskuinera, soka batez hornitua den eta patar arras zutean gora doan bidexkatik. Orduan, mendian gora eta behera doan ibilbide zati batean ibili, ehunka metro.



5. ZATIA



7. ZATIA



6. ZATIA > Errepide zatia

UTM: 628137 - 4805283. Errepide batera iritsi, auzogune baten erdian. 250 m ibili, auzogunea zeharkatzeko. Zabalagoa den errepide batera iritsi, eta eskuinetik segitu, 200 m-tan. Orduan, joan ezkerredera, karrika itsu batetik. 150 m ibili ondoan, jaisten hasten delarik, karrika itsua bide bilakatzen da. 70 m geroago, hesi batera iritsi. Orduan, joan eskuinera, eta zuhaitzen artetik ibili. Hesiaren artetik segitu, eta, gero, etxe berrien artetik ibili, 300 m. Eta beste errepide batera iritsi.

7. ZATIA > Jaitsiera

UTM: 627629 - 4804690. Jarraitu errepide honetatik, zuzen. Hamarnaka metro geroago, errepidetik segitu, baina ezkerretik. Hola jaitsi, eta 600 m ibili. Bihurgune gaiztoa baino lehen, errepidetik atera. Ondotik, jarraitu bide batetik, eta, berehala, joan eskuinera, bidexka ttipi batetik. Erreka zeharkatu, eta patar zutean gora joan, oihanean.

8. ZATIA > Arraiarekin juntatzea

UTM: 627872 - 4804407. Orduan, ibilbideak "Arraia" ibilbidearekin junta egiten du. Joan eskuinera eta errepide ttipi batera iritsi. Errepidean 50 m ibili. Eta joan eskuinera, auzogune bat zeharkatzen duen bide harriztatu batetik. Bidearen puntan, joan eskuinera, oihanean sartzen den eta errepide bateraino jaisten den bidexka ttipi batetik. Jarraitu ezkerretik errepide honetan, elizara iritsi arte.

INTERESGUNEAK

❖ **Haritz lepatuak**
Enbor labur bat eta «buru» hanpatua. Zuhaitz horien itxura nahiko harrigarria da; baina, mozte anitzen emaitza besterik ez da. Zuhaitz lepatuen teknika aspalditik erabiltzen da. Enborra hunkitu gabe, egurra ustiatzeko aukera ematen du.
UTM: 628150 - 4803970

❖ **Iratzelekuak**
Iratze arrunt heldua ez da jangarria. Aldiz, iratzearen kimu gazte biribilatuak jan daitezke. Euskal Herriko mendietan iratze anitz dago. Kabala hazleek landareari baliagarritasuna aurkitu diote: bordetako zolan inaurkin gisa erabiltzen dute.

❖ **Lapurdiko etxea**
Euskal Herrian, gure kultural, etxeak gaitzeko garrantzia du. Probintzia bakoitzak, eta batzuetan ibar bakoitzak ere, bere arkitektura-ezaugarriak ditu. Hemen, zurbeso ageriko Lapurdiko etxearen adibide zehatz bat ikus dezakezu.
UTM: 627576 - 4803872



ARRETAZ IBILTEKO LEKUAK

Patar zutak: kontuz ibili hemen zenbait patar arras zutetan, aldapa horiek arras lerrakorak izan baitaitezke euriagatik. Tinki atxikitzeko sokak egonik ere, 250 m-ko ibilbide zatian auden pasabide guti horiek arretaz ibiltzea eskatzen dute
628371 - 4805483

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzat duden emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└	└	└	◀
Itzul eskuin	┘	┘	┘	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAIN, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.